

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5277

EBAZPENA, 2020ko azaroaren 9koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria-rena, hainbat entitateetako langileen prestakuntzarako laguntzak esleitzen dituena.

2020ko uztailaren 13an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioiko eta foru-administrazioiko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duen ebazpena.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta aipatutako ebazpenean ezarritakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Honako laguntza hauek ematea entitateetako prestakuntza finantzatzeko:

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO UDAL-ADMINISTRAZIOAK

Entitatea	Esleitutako zenbatekoa (eurotan)
Andoaingo Udala	11.044,00
Arrasateko Udala	14.350,00
Beasaingo Udala	8.395,40
Bermeoko Udala	3.366,48
Bilboko Udala	147.511,50
Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea	927,00
Donostiako Udala	24.294,15
Durangoko Udala	2.778,52
Eibarko Udala	8.734,78
Ermuko Udala	13.400,00
Errenteriako Udala	19.826,50
Getxoko Udala	5.687,79
Irungo Udala	17.495,13
Laudioko Udala	3.083,50
Legazpiko Udala	8.609,00
Leioako Udala	3.656,00
Orozkoko Udala	182,50
Urnietako Udala	5.713,90
Vitoria-Gasteizko Udala	7.284,66
Zallako Udala	3.692,50
Zigoitiko Udala	798,50
Guztira	310.831,81

AUTONOMIA-ERKIDEGOKO FORU-ADMINISTRAZIOAK

Entitatea	Esleitutako zenbatekoa (eurotan)
Arabako Foru Aldundia	38.856,53
Bizkaiko Foru Aldundia	109.623,14
Gipuzkoako Foru Aldundia	69.520,33
Guztira	218.000,00

Bigarrena.– Agintzea entitate horiei esleitutako zenbatekoen osoa ordaintzeko izapideak hasteko.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikulua arautzen duen moduan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakiok administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikulua ezarritakoaren arabera.

Hala ere, aldez aurretik, Erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezeztatu dezan. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetean erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua izan bada, Administrazioarekiko Auzietako helegitea jartzeko epea berariazko akordioa jasotzen den edo isilbidez ezeztatuta jotzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 9a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria,
MAITE IRURETAGOIENA IBARGUREN.